

Foto-inkesta



Larunblai

Hasi zirenenetik ia ikasturtea igaro da. Larunbatero jolas eta jolas ibili dira haurrak. Euskaraz mintzatuz, ongi pasa dute. Oihane eta Nahiak lan ederra egin dute talde honekin, bistan denez. Galdera hauekin joan gara haurrengana eta begira zer erantzun diguten:

- 1- Nola eman zenuen izena eta zergatik?
- 2- Zer da egiten dituzuen ekintzetatik gehien atsegin duzuna?
- 3- Larunblaik zer eman dizu, jolas euskaraz egiteko aukerarekin batera?
- 4- Berrero emango al zenue izena?

Markos Napal, 9 urte, LH-ko 4. maila



- 1.- Nire gelara antolatzaileek abisua bidali zutenean gelako nire beste lagun batekin eman nuen izena.
- 2.- Gehienbat jokoak gustatu zaizkit: aulkiena, zapiena eta beste batzuk.
- 3.- Larunblain jende berria ezagutu dut eta elkarrekin jolasean euskaraz aritzen gara. Gainera nik batzuetan etxean ere euskaraz egiten dut nire arrebarekin eta nire aitarekin.

- 4.- Bai, nik bai.

Mikel Alvarez de Eulate, 10 urte, LH-ko 4. maila



- 1.- Ikastolan eskutitza eman zidatelako eta nire lagunek ere izena eman zutelako.
- 2.- Batik bat esku lanak: arraina, pinguino, ...
- 3.- Lagun berriak egin ditut eta jolasean oso ongi pasatzen dugu.
- 4.- Bai, asko gustatu zait eta errepikatuko nuke.

Ikerne Huertanos, 10 urte, LH-ko 4. maila



- 1.- Eskolara bidali ziguten eskutitza eta gustatu zitzaidan ekintza desberdin asko zeudelako.
- 2.- Janaria prestatzen oso ongi pasatu nuen, trufak egin genituen eta gero etxean jan.
- 3.- Lagun berriak egin ditudala eta larunbatero jolasean ibiltzen gara.

- 4.- Gustatu zaidanez berrero etorriko nintzateke.

Irene Armendariz, 9 urte, LH-ko 3. maila



- 1.- Eskolan ohar bat bidali ziguten eta neure kabuz izena eman nuen.
- 2.- Ez nuke ezer azpimarratuko, denak gustatu zaizkit.
- 3.- Batez ere lagun berriak egin ditudala eta jolasean euskaraz ibiltzen gara.
- 4.- Berrero errepikatuko nuke.

Montejurrako txoriak, Montejurra laket



■ Luisfer

Ugari? -ETA!

Gaurko txangoa -eta bukaera duten herrien barna egingo dugu. Ikusiko dugun bezala, Estellerriari badira sei herri -eta bukaera dutenak; hauek dira: Arizaleta, Arkueta, Azketa, Muneta, Murieta eta Nobeleta. Zein ote da izen hauek gordetzen duten esanahia?

Izenburuan agertu duten moduan, -eta bukaerak aniztasuna adierazten du, gaztelarako los eta las artikuluen parekoa. Hori kontutan hartuz, aipatutako herri izenak miatuko ditugu segidan:

- **Arizaleta:** haritz zabal aunitz.
- **Arkueta:** arku aunitz.
- **Azketa:** haiz aunitz.
- **Muneta:** muno aunitz; "las colinas" erderaz.
- **Murieta:** more edo idoi aunitz, "las balsas" erderaz. "Morieta" agertzen da dokumentazio zaharretan.
- **Nobeleta:** nobela aunitz, mahatsondo landatu berri aunitz, alegia.

Eta bukatzeko, irakurle, -eta bukaerak aniztasuna adierazten duela ikusi eta gero, ariketa bat proposatzen dizut: saia zaitetz "Los Llanos" euskaratzen, ea zer ateratzen zaizun.

Argi gorria piztu da, GAREAN IRRATIAN!

■ Ima Lopetegi

Irratiko argi gorriak badu sutondo goxo-epelaren antza. Estudioan sartzen garenean, ateak ongi itxi eta hantxe gelditzen gara, arrainontzi moduko batean, kristalaren beste aldean teknikaria dugularik. Iduri luke, horrela isolatuta, bakarrik gaudela, baina argi gorria pizten delarik, hau zirrara! Bihotzaren taupadak azkartzen dira eta hitzegiten hasten gara! Ez dugu inor ikusten, baina jende askoren berotasuna somatzen dugu.

Argi gorriak bizia adierazten du; mintzatzeko hasi eta hitzak badoaz. Irudikatzen ditugun bazter ezkutuenetara ere iritsi ahal izango dira. Lagunartea irekia da gainera: nahi duen guztiak dauka aukeran eta ez dago sutondora biltzeko inongo aurkezpen edo baimenik behar.

Irratia entzutea maite dugu: lagun hurbil, bero eta gertua da, betiko laguna. Trabarik egin gabe ondoan egoten bada, gure lanetan ari garelarik alboan izaten duguna, esku artean duguna uzteko eskatu gabe, maiz, lan hori arintzen diguna. Besteak beste, horregatik estimatzen dugu hainbeste irratia, gurean jarraitzen uzten digulako.



Eta nekatzen garenean, kitto, itzali eta ixiltasuna! Irratiaren osagarririk hobereana, Ixiltasuna. Tarteka Ixiltasunak on haundia egiten digulako, bizi berrituta itzultzen gara gero irratiara, bakardadearen ondoren lagunartea hartzen dugun moduan.

Guzti horregatik, modu berezian esker-tzen dugu irratia euskaraz entzutea: gure musika, berriak, eremu oso ezberdinetako euskal jendeen nondik norakoak... Eta zorionez, gaur egun badauzkagu hainbat esatari, banaka ala taldeka, bere lana arte eta trebezia haundiz burutzen dutenak. Horrelakoetan, esker ona bikoitza izaten da: alde batetik gurean ari direlako, euskaraz, eta bestetik entzuteak aberasten gaituelako. Euskaraz bizi-bizi, errex, plazerrez, edozertaz eta mugarik gabe.

Duela gutxi, apirilaren zirikitu berri bat zabaldu da euskararentzat Lizarrako irrati-gintzan: Punto Radio irrati-ko zuzendaria, Alberto Araizek, astero euskal tarteko bat sortzeko aukera eskaini dio Garean elkarteari. Ordu laurdeneko tarte bat da, larunbatero, ordu batak laurden gutxi inguruan hasten dena (FM 93.5ean). Tarte horretan euskal musika, Lizarra eta Estellerriko euskal jendeak eta Zorion agurrak dauzkagu entzungai. Musika alai, bizi eta anitzak elikatzen gaitu, gure inguruko euskaldunek beren zereginen berri ematen digute eta egun horietan urteak betetzen dituzten txiki, gazte eta nagusiak zoriontzen ditugu.

Tartea laburra da, eta hari honek soka luze-luzea ekartzea nahi genuke, onuragarria denontzat...

Aukera baduzu, entzun! Zure gustokoa izatea espero dugu! Eta inguruko norbait zoriondu nahi baduzu, hortxe Punto Radioko telefono zenbakia: 948551200. Mezu polit bat bidali eta kantu eder bat eskeiniko diogu.

4.
zbk.

kotarro

2008ko maiatza

debaldeko alea

Garean-jarduerak

Lizarran Kantuz
maiatzak 24; ekainak 28
arratsaldeko 20:00tan
Baxenabarra kaletik.

Txokolipuinak
ekainak 4 arratsaldeko 18.00
La Bota Elkartearen egoitzan.

Larunblai
maiatzaren 17, 24 eta 31eko larunbat
arratsaldeetan, 16:30etatik 18:30etara,
Gazteriaren Etxean.

Garean Irratian
Larunbatero 12:45 aldera,
Lizarrako Punto Radio (FM 93.5).



Puy 2008

Oskorri - Lizarrako Musika Bandarekin
Maiatzak 23, ortzirala 20.00
Lizarrerria Kiroldegian

(Puy egitarau osoa barruan)

Garean
Euskaldunon Elkarte

Lizarratik zuzen-zuzenean:
New metal-a eta folk roka

Lizarrako gazte euskaldunek eratu dituzten bi musika talderi elkarizketa egin diegu euren ibilbideaz, asmoez eta etorkizunaz.

Lizarrako musika harrobiak etengabe ematen ditu kumeak, urtez urte eta belaunaldiz belaunaldi, estilo askotako musikariak ematen ditu hiri honek. Oraingo honetan bi talderen berri ematera gatozkizue, biak gazte euskaldunek osatzen dituztenak. Bajo Zero eta La Rua 44. Musika freskoa eta gaur egungoa. Lizarratik zuzenean.

Bajo Zero

Lau kidek osatzen dute Lizarrako musika talde hau: Javi Otxoa, bateria jolea; Iñaki Viñaras, abeslaria; Mikel Kolomo, baxu jolea; eta Jon Mitxelena, kitarra jolea. Hasieran bakoitza bere aldetik zebilen bere tresna joz, egun batean kitarra jolea eta bateria elkarrekin jotzeko geratu ziren arte, gero bertze biak sartu ziren taldea osatzeko. 2006an hasi ziren.

Beren musika ez da batere hotza, new metal estiloko kokatzen dute beren burua...

Jotzen duten musika mota berbera atsegin zaiela azpimarratzen dute, eta zenbait talderen eragina aipatzen dute; adibidez, System of a Down, Hamlet, XXL, III Niño. Horiexek omen dira dituzten gustu musikalak. Hasi zirenean musika sinpleagoa egiten zutela aitortzen dute baina denboraren poderioz konplexuagoa egitea lortu dutelako pozik agertzen dira. Gainera, hasierako

markoen ipinketa
zurriola
enmarcaciones

Kale Nagusia, 80
31200 Lizarra-Estella
Tel.: 948 55 22 86 - 948 55 29 94

SCHERZO
ESCUOLA DE MUSICA
MUSIKA ESKOLA

Tel. 948 54 68 67

kotarro

4. zenbakia

Navarro Villoslada, I - 4.E
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 1000

UDALBIDE
ELKARLAN ELKARTEA

egoera ekonomikoa, tresnarik gabe, anplifikadorerik gabe, gainditu dute, batetik kontzertuak joz, bertzetik beren dirua inbertituz.

Entseiuak beti taldekide baten bajaran egiten dituzte, hasieratik horrela izan da, eta debuta 2006ko iraileko Arronizko jaietan, gaztetxean egin zuten: "Kriston arrakasta izan genuen", diote harro. Gero, Lizarrako Gazteriaren etxean Vortex eta Akatu metal taldeekin batera aritu ziren. Bertze kontzertu batean, Lizarrako Gaztetxean, Naiz Roxa-rekin batera (Jousilouli ohiak).

Laster Madrigo XXL taldeak Iruñean egin duen disko berriaren aurkezpenaren joko dute.

Orain lehenbiziko maketa prestatzen ari dira, lau abestiz, eta Iruñeko Identidad Oculta raperoen parte hartzearekin.

Oraindik jarraitzaile askorik ez duten arren, lagunak eta musika zale batzuek haintzat hartu omen dituzte. "Esan Bajo Zerokoa zarena eta neska guztiak... ja, ja, ja", barre egin dute ea musikari direnetik gehiago ligatzen duten galdetutakoan. Talde honekin harreman ekonomikoa, profesionalak... edonolakoak nahi izanez gero Internet-eko helbide honetan dituzue datuak eta berri gehiago: www.myspace/bzbajozero Dagoeneko 5000 bisita izan omen dituzte.

La Rua 44

Musika talde hontako kideak sei lagun dira, bortz mutil eta neska bat: Adrian Azkona, akordeoi eta kitarra jolea; Mikel Garagarza, bateria jolea; Josu G. de Bakedano, kitarra jolea; Koldo Montoya, baxu jolea; Iban Roldan, klarinete jolea eta Rakel Vicente, abeslaria. Adrianek konposatzen ditu musika

eta letrak. Lehenbizi akordeak, gero melodia eta azkenik denen artean konponketak. Abestien letrak bizitzari buruz, maitasunari, jaiei, gerren aurkakoak dira.

2006an Mikel eta Koldo musika eskolan Mago de Oz taldearen partitura gustatu eta elkarrekin jotzeko geratu ziren. Orduan bateria eta saxoa jotzen zuten; gero bertzei deitu zieten. Lehenbizi tresnak eta ahotsa azkena, "ia-ia casting-a egin genuen abeslaria hatatzeko", diote irriz. Talde osoa 2007an osatu zen eta serio hasi ziren lanean. Laguntza handia izan dute Koldoren aitaren aldetik, bai entseiu tokia

utuz, bai teknikoki ekipoe-kin laguntza handia eman. Taldearen izena ere berari bururatu omen zitzaion, izan ere erran behar da hasierako izena "Complices del silencio" zutela, baina antzeko izeneko taldeak daudenez (Heroes del silencio, Complices...), aldaztea erabaki zuten. Orduan entseiuetan erabiltzen zuten bajaranen helbidea jarri zioten izena.

2007ko ekainaren 23an egin zuten debuta Lizarrako San Martin enparantzan, artean abeslaririk gabe. Arazo tekniko batzuk izan zituzten arren kontzertu ongi atera



omen zen eta jende asko izan omen zuten. Harrezkero Arandigoengo jaietan, irailan, jo zuten, ordurako abeslari eta guzti. Jarraian Eultzeko jaietan, iraila amaieran. Gero Gazteriaren etxean, urriaren 11n. Eta azkenik Tximista Hotelean, garagardo saltzaileen kontzertioan.

Hurrengo kontzertua Aiegiko Gazteriaren astean, ekainaren 6an izanen dute, gaueko 11:30ak aldera.

Jotzen duten musika folk rok estilokoa dela diote. Akordeak kitarrak eta melodiak klarineteaz jotzen dituzte, batez ere. Mago de Oz taldearen eragin handia aitortzen dute behin eta berrito. Talde horren estiloko musika egiten saiatzen dira, nahiz eta La Rua 44-k badituen bere ezaugarri bereziak. Musika zaletasunei dagokienez roka aipatzen dute,

baina "ez oso fuertea, suabea, melodia duena dugu gustukoena", diote denek adostasunez.

Jotzen dituzten abestiak beraienak dira, bertze batzuk Mago de Oz-enak, baina jotzen dituzte El canto del loco-renak, Korrika, Ikusi mendizaleak...

Kontaktuan jarri nahi dutenek telefono honetara dei dezakete: 650348811.

PUY 2008 egitaraua

Maiatzak 23, ortzirala

- 19.00-20.00 Foruen plazan, gaita-musika, "Ruiz-Echeverria" Gaiteroekin.
 20.00-22.00 Foruen plazan, Musika, "Teison"ek girotuta.
20.00 Lizarrerria Kiroldegian, Oskorri - Lizarrako Musika Bandarekin.
 22.00 Foruen plazan, Zezensuzkoa
 23.00-01.00 Foruen plazan, Musika, "Teison"ek girotuta.

Maiatzak 24, larunbata

- 16.00 Foruen plazan, irteera "Emakumezkoen II. Trofeo Espainiako Kopa".
 18.00 Zezen Plaza, Nobillero berrien lehiaketa.
18.45 Udaletxetik, dantzari-desfilearen irteera.
 19.00 Foruen Plazan, "Lizarrako Larrain Dantzaren VIII. Eguna".
 19.00 Kalejira Igarri txarangarekin
 19.30 Kiroldegian, EHF koparen finaleko itzulera, Itxako - Dinamo Volgograd.
22.30 Lizarran Kantuz: Baxenabarra kaletik.
22.00 Santiago plaza, Kontzertu Gaztea.



Maiatzak 25, igandea



- 8.00 Dianak gaitero eta txistulariekin.
 8.30 Dianak Estella-Lizarrako Musika Bandak eskainita.
 11.00 San Juan elizatik, Puy Birjinaren prozesioa, Coronación plazarantz.
 12.00 Coronación plazan Meza Saindua Koroatzearen 50. urtemugan.
 11.00 Bisitaldi antzeztuak auzo monumentalean zehar: La Strada taldea. "Hau beste historia bat da".
 17.30 Foruen Plazan, "XI. Nafar Jotaren Erakustaldia"
 18.00 Zezen Plazan, "Recortador" en lehiaketa
 20.00 Udaletxean, harrera ofiziala S. D. Itxakori.
 20.30 Coronación plazan, Kontzertua, taldea: Djilandjang (Senegal).
 21.00-22.00 Foruen Plazan, gaita-musika "Iturrieta" Gaiteroek eskainita.
 22.00 Foruen plazan, Zezensuzkoa.

Maiatzak 26, astelehena

- 17.00-20.00 Tailerrak haurrentzat, "La Residual", Los Llanos pasealekua (Skate-pistaren ondoan).




GARI eta SEI



denborapasak

Gurutzegramak

Estellerriko ekoizpenak



Aurrekoaren soluzioak

1. Nabarrerria; 2. Aben-Serak; 3. Kotarro; 4. Nagusia; 5. Izarra; 6. Deierri; 7. Puy; 8. Inmakulada

Ezker eskuin


- Segovian ere Lizarran bezala tipikoa omen da
- Janak kalterik egin ez dezan bazkalondoan hartzen den edaria
- Esnekia

Goitik-behera

- Lurpeko hatzamar zurizka
- San Andres eguneko bazkariko platera, astun samarra
- Gornia nahiz berdea beti paregabea
- Beltza ere gorria bezain ona omen da Nafarroakoa
- Berdura omen da, aleak izan arren

Euskalgilfoa

Baloia zaigu.



ZU erdaraz

Aurrekoaren soluzioa

Garean garean legez

ESTELLA PASTELERIA GOXOTEGIA LIZARRA
 ANGELA
 Plaza Fueros 2 Tel 948 55 07 95

AROA
 Ardo Eko...logiko!
 Zuzenbain
 Dolarri
 31292 Nafarroa
 948 555394
 info@arowines.com

LIBURUDENDA
INO
 PAPERDENDA
 Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
 Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA

BAR
OLARY
 Félix Huarte plaza, 7
 31007 IRUÑA
 Tel. 948 264 576

BOETEMUE
 tattoo
 piercing
 arropadenda
 Inmaculada 58 - Lizarra - tel. 948 553 780

KATXETAS
 Taberna
 Estudio de Gramática, 2
 31200 Lizarra- Nafarroa
 Tel. 948 550 010